

1. SARRERA

Herri klaseek garrantzia handia aitortu izan diote betidanik hezkuntzari. Hezkuntza errealitatea ulertzeko eta errealitateari aurre egiteko tresna gisa ikusi dute langileek, norbanako mailan nahiz maila kolektiboan. Norbanako mailan, hezkuntzak bizimodu hobea izateko aukerak irekitzen dituela pentsatu izan dute langile askok eta “ikas ezazu biharko egunean norbait izaten ahal izateko” ohiko esaldia izan da langile auzoetan. Maila kolektiboan, hezkuntza errealitatea ulertzeko ez ezik, bidegabetzat jotzen den errealitatea eraldatzeko baliagarria dela ulertu dute. Herri sektoreen behar formatiboei erantzuten dien hezkuntza ereduari, “Herri Hezkuntza” deitu diogu. Euskal Curriculumak ikuspegi hau kontutan hartu beharko luke.

2. HEZKUNTZA SISTEMA ETA HERRI HEZKUNTZA

Luze joko liguke herri sektoreen ikuspegitik hezkuntza sistemaren gaineko azterketa egitea. Atal honetan, curriculumaren gaia behar bezala kokatzeko beharrezkoak diren azaleko erreferentzia batzuk aipatzera mugatuko gara.

Atzera begira: hezkuntza sistemaren sorrera eta orokortzea

Hezkuntzaren instituzioak aldaketa handiak bizi izan ditu Europan historian zehar. Hasiera batean, hezkuntza prozesua modu inkontzientean ematen zen: belaunaldi zaharrak hainbat ezagutza, abilezi eta balore igortzen zizkion belaunaldi berriari eguneroko bizitzan. Nekazal iraultzarekin batera, estatu-egiturak sortu eta gizarte konplexuagoak eratu ziren. Orduan, *eskola* agertu zen, hau da, denbora eta leku jakin batean burutzen zen hezkuntza ekintza planifikatua. Edozein kasutan ere, herritarren gehingoaren eskolaratzea mugatua zen eta alfabetatze tasak nahiko txikiak ziren. Goi mailako hezkuntza eliteen seme-alabentzat baino ez zen esistitzen.

Estatu-nazio modernoaren sorrerarekin, hezkuntzaren instituzioak aldaketa berria bizi izan zuen. “Hiritar” kontzeptuaren sorrerarekin batera, “hiritarrak” eratzeko eginkizunari heldu zioten estatuaren kudeatzaileek. Era honetan, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar herritarren eskolaratze tasa igo eta alfabetatze tasa jaitsi egin zen. Euskal Herria ez zen salbuespena izan, aitzitik, gure herrian oinarrizko hezkuntzaren hedapena nahiko goiztiarra izan da.

Prozesu hori areagotu egin zen XX. mendean zehar: derrigorrezko eskolaldia zabaldu eta unibertsitaterako sarbidea orokortuz joan zen. Era honetan, mende hasierako Euskal Herrian 12-13 urtetik aurrera ikasten jarraitzea bitarteko ekonomiko nahikoak zituztenen eta apezgaien pribilejioa zen bitartean, mende amaierarako, 15 eta 24 urte bitarteko euskal gazte gehienek (%63,2) ikasten dihardute. Unibertsitatean, kasik 100.000 lagun ari dira¹.

Jakina denez, eskola herritar guztiei zabaltzea herri sektoreen eta langile mugimenduaren aldarrikapen historikoa izan da, burgesiak ezagutzaren gainean zuen monopolioa hautsi asmoz. Ildo honetan, izan ziren oinarrizko hezkuntzaren zabalpenaren aurka aritu ziren agintariak. Esaterako, 1807an, Royal Societyko lehendakariak, herrialde osoan zehar oinarrizko eskolak sortzeko britaniar parlamentuan aurkeztutako proposamenaren aurka hitz egin zuen: “*Teoria mailan, langile klaseei heziketa emateko egitasmoa nahiko zalantzakorra da eta, praktikan, kaltegarria litzateke beren moral eta zorionerako. Jende xeheari bere posizioa mespretxatzen irakatsiko lieke, beren posizioari berezkoa zaion nekazaritza eta bestelako ogibideen zerbitzari leialak bilakatu beharrean. Subordinazioa irakatsi beharrean, gaizkile eta errebeldeak bilakatuko litzuzke, zenbait konderrri industrializatuetan ikusi den bezala. Orduan, panfleto*

¹ Udalbiltza: Euskal Herria datuen talaiatik. (2002)

sediziosoak, liburu arriskutsuak eta kristautasunaren kontrako argitalpenak irakur lezakete. Beren nagusiekiko ahogorri bilakatuko lituzke; urte gutxiren buruan, gobernuak beraien aurka indarra erabiltzea beste erremediorik ez luke izango". Bozketa hartan, parlamentuak atzera bota zuen oinarrizko eskolak hedatzeko proposamena.

Italiako hezkuntza ministro Fernando Martinik ere, 1888an Italiako diputatuen ganberan eginiko diskurtsoan, bigarren hezkuntzako eskolak beheko klaseei irekitzea deitoratu zuen, honako esaldi hau gehituz: *"Horregatik premiazkoa da klase gidariak gogor saiatu daitezzen nagusitasun politiko eta ekonomikoa inolaz ere ez galtzen"*. Garai horretan Italiako lehen ministro izan zen Giovanni Giliottik honakoa idatzi zuen bere memorietan: *"Caltagironen lur-jabe handien biltzar bat bildu zen, zeinak oinarrizko hezkuntza bertan behera uztea proposatu baitzuen, irakurtzearen poderioz nekazari eta meatzariak ideia berriak bereganatu ez zitzaizten"*.

Ikaskuntzari gorazarre

Burgesiaren eta lur-jabe handien sektore batek hezkuntza herritar guztiei zabaltzearen ondorioz nagusitasuna galtzeko beldurra zuen bezala, nagusitasun horrekin amaitu nahi zutenentzat hezkuntza aldaketarako tresna zen. Hona hemen, adibide moduan, Bertold Brechtek 1933an idatzitako "Ikaskuntzari gorazarrea":

Oinarrizkoa ikas ezazu! Ordua
heldu zaien horientzat
ez da inoiz beranduegi.
"Abc" a ikas ezazu! Ez da aski, baina
ikas ezazu. Ez zaitetz nekatu!
Has zaitetz! Zuk guztia jakin behar duzu!
Buruzagi bat izatea da zure patua.

Ikas ezazu, zahar etxean zauden gizona!
Ikas ezazu, gartzelan zauden hori!
Ikas ezazu, sukaldean zauden emakumea!
Ikas ezazu, agurea!
Buruzagi bat izatea da zure patua.

Eskolara joan zaitetz, doakabe hori!
Jakintza bila ezazu, hotzez hiltzen ari zaren hori!
Eskuan har ezazu liburua, goseti hori! Arma bat da!
Buruzagi bat izatea da zure patua.

Ez izan beldur galdetzeari, adiskide!
Ez utzi konbentzitzen!
Froga ezazu zuk zeuk!
Zuk zeuk ez dakizuna
ez dakizu.
Kontua birpasa ezazu
zuk ordaindu behar duzu.
Seinala ezazu behatzaz gauza bakoitza
eta galdetu "Eta hau, zer dela eta?"
Buruzagi bat izatea da zure patua.

Hortaz, derrigorrezko eskolaldiaren ezarpena eta goi irakaskuntzaren hedapena positibotzat jo beharra dago. Alabaina, estatu-nazioen kudeatzaileak hezkuntza sistema modernoak egituratu eta orokortu dituztenean, bestelako xede batzuk izan dituzte buruan:

- lehenik eta behin, herritar guztiengan estatuaren hizkuntza, kultura eta ideologia errotzea (oinarrizko hezkuntza);

- bigarrenik, herritar guztiei industrializazio prozesuak eta administrazio zentralizatuaren egituraketak eskatzen dituen oinarrizko ezagutzak (besteak beste irakurri eta idaztea) bermatzea (oinarrizko hezkuntza);
- hirugarrenik, egitura berrien kudeaketarako beharrezkoak diren funtzionari, irakasle eta abarrak hezitzea (lanbide heziketa eta bereizki unibertsitatea);
- laugarrenik, eta fordismoaren ildotik enpresek lan-prozesuaren gaineko kontrola bereganatzen dutenez (lanaren antolakuntza, teknologia e.a.), eginkizun zehatzetan arituko diren langile nahiz kudeatzaile espezializatuak hezitzea (lanbide heziketa eta unibertsitatea).

Ondorioa gazi-geza da. Izan ere, oinarrizko hezkuntza herritar guztiei bermatu zaie eta hori langileriaren garaipen historikoa da. Baina, nolakoa da “herritar guztiek” jasotzen duten hezkuntza? Zein beharren arabera dago antolatua? Eta, curriculumari buruz ari garela, zer nolako ezagutza, abilezia eta baloreak bultzatzen dira?

Globalizazioa eta hezkuntza

Agintari politiko nahiz enpresariak, unibertsitateko teoriko nahiz komunikabideetako adituak, guztiak bat datoz. Azken urteetan globalizazio prozesuak eragindako aldaketak hain dira sakonak, esaten digute, ezen gizarte berri bat sortu baita: Ezagutzaren Gizartea. Eta aipatutako kontzeptuari konnotazio positibioa ematen diote. Hona hemen Europako Batzordeak etengabeko ikaskuntzari buruzko Memorandumean (2000) azaltzen duena:

Ezagutzaren gizarteen protagonistak herritarrak dira. Gakoa ezagutza modu eraginkorren sortu eta erabiltzeko giza gaitasunean datza, etengabeko aldaketan dagoen oinarriaren gainean. Gaitasun hori erabat garatzeko, beharrezkoa da geure bizitzen gaineko kontrola hartu nahi eta ahal izatea; finean, hiritar aktiboetan bilakatu behar gara. Hezkuntza eta formakuntza iraunkorra, aldaketaren erronkari erantzuteko modurik hoberena dira².

“Aldaketaren erronka” horri erantzuteko, beharrezkoa omen da, besteak beste:

- Hezkuntza bizitza osoko prozesu gisa ulertzea.
- Norberak bere hezkuntzaren gaineko etengabeko kezka izatea eta egoera berrietara egokitzen jakitea.
- Jakintza jakin batzuk eskuratzea baino, kompetentzia jakin batzuk eskuratzea, jakintzak aldatu egiten baitira denbora oso denbora laburrean. Beraz, zerbait ikastea baino, edo horrekin batera, ikasten ikasteko gaitasuna garatu beharra dago.

Aipatutako irizpideek itxura ona dutenik ezin uka. Baina, zein praktika dago “ezagutzaren gizartearen” diskurtso horren atzean? Horren itxura ona ez duten praktika ekonomikoa, hain zuzen ere: zerbitzu publikoen pribatizazioa, kontratazio formula berriak, prekarizazioa, aisialdiaren eta kulturaren merkantilizazioa... Horregatik, hezkuntza iraunkorraz hitz egiten digutenean, testuinguru sozial eta ekonomiko hori hartu behar dugu kontutan. Horrela egiten badugu, pentsa dezakegu hezkuntzan bultzatzen ari diren berrikuntzen atzean bestelako helburu batzuk daudela:

- Teknologi aldaketa etengabea denez, berrikuntzak teknikoki menperatzeko gaitasuna izango duten langileak hezitu nahi dira. Gauza berriak ikasteko gaitasunari garrantzia handiagoa ematen zaio, gauza jakin batzuk jakiteari baino. Bere burua berziklatzen dakiten langileak bilatzen dira.
- Enpresen arteko lehiakortasuna izugarri handia denez, kalitate hobea eskaintzea da besteei gailentzeko bideetako bat. Eta kalitate hobea eskaintzeko beharrezkoa da lan-esku hobea izatea, jantziagoa, gaituagoa, heziketa gehiagokoa. Aldagai organizatibo eta formatiboak klabeak dira enpresentzako.
- Behin-betiko lanpostuan oinarritutako eredutik behin-behinekotasunean eta aldaketan oinarritutako eredura igaro gara. Enpresek lan plantila malgua nahi dute eta, horretarako, kaleratzeak errazteaz gain, profil jakin bat duten langileak beste postu jakin

² Europako Batasuna: Etengabeko ikaskuntzari buruzko Memoranduma (2000:19-20)

batetara egokitzeko aukera nahi dute. Postu berrian aritu ahal izateko, ikastaroa egin beharko du langileak. Era honetan, etengabeko prestakuntza izeneko eremuak enpresen beharrei erantzuten die.

Bestelako mundu baten alde, bestelako hezkuntza baten alde

Garapen eredu kapitalistak bere hezkuntza agenda duen bezalaxe, bestelako mundu baten alde antolatzen den eremu soziopolitiko heterogeneoa ere bere agenda eratzen ari da. Mundu osoko hezkuntza beharrak identifikatzea eta mundu osorako programa bat proposatzeak dituen zailtasunak kontutan hartuta ere, interesgarria da Munduko Hezkuntza Foroetan lantzen ari diren kontzeptuei begirada bat botatzea. Munduko Hezkuntza Foroa, Porto Alegren abiatutako Munduko Gizarte Foroari loturiko hausnarketa gunea da. Orain arte hiru edizio burutu dira, Porto Alegren bertan, 2001, 2003 eta 2004. urteetan. Hona hemen azkenekoak aldarrikatu zuen ekintza-programa:

1. Eremu guztietan hezkuntza publikoa eta berau bermatzeko estatuak duen erantzunkizuna defendatzea.
2. Maila eta eredu guztiak besarkatuko duen hezkuntza publikoa eta doakoaren aldeko mundu mailako mugimendua egituratzea.
3. Hezkuntzaren, ezagutzaren, zientziaren eta teknologiaren merkantilizazioa bultzatzen duen edozein itun (nazio mailakoa nahiz nazioartekoa) errefusatzea, bereziki MMEren merkataritzari eta zerbitzuei dagokionean.
4. Gobernuak zerbitzu publikoak eraisteko dauden presioak errefusatzea.
5. Nazio mailako nahiz nazioarteko enpresek hezkuntza sistema publikoan esku sartzea gaitzestea.
6. Subjektuen eta komunitateen singularitatea aitortuko duten eta genero, etnia eta kultur dibertsitatea aintzat hartuta hezkuntza jasotzeko berdintasuna bermatuko duten ekintzak sustatzea, eskolaz kanpoko eremuen potentzialitate hezitzailea kontutan hartuz.
7. Hezkuntza jasotzeko eta politika publikoen erabaki eremuetan parte hartzeko genero arteko berdintasuna exigitzea.
8. Arrazakeriaren eta klase ezberdintasunen aurkako ekintzak bultzatzea.
9. Gobernu nazionalen, analfabetismoaren desagertuaren aldeko, baztertuen dagoen populazioaren hezkuntza inklusioaren aldeko eta haurren lanaren ustiapenaren kontrako programei lehentasuna emango dien agenda aurkeztea.
10. Munduko Gizarte Foroaren eta bestelako borroka foroaren egituraketa, langileen esperientzia, kualifikazio eta jakintzak aintzat hartuak izango direla bermatzeko.
11. Gobernuak hezkuntzako langileen balorizazioa exijitzea, baita beren lan eskubideen errespetua eta lan baldintza duinen bermea ere.
12. Enplegaitasunaren logika arbuatzen duen eta dimentsio etiko, estetiko eta politikoa aintzat hartzen dituen lanbide heziketa ereduak defendatzea.
13. Institutuzio publikoen eta politika sozialen kudeaketaren eta bereziki hezkuntzari dagozkion demokratizazioa exigitzea, osagarriak diren politika intersektorialekin lotuz eta hezkuntza komunitateak indartuz.
14. Hezkuntzaren finantziarioaren gaineko kontrol soziala sustatzea.
15. Mundu mailako mobilizazioak indartzea; justizian eta bakean, elkartasunean eta iraunkortasunean oinarritutako kulturaren aldeko hezkuntza indartzea.
16. Haurren, nerabeen eta gazteen protagonismoa bultzatzea, jakintzaren eraikuntzaren parte hartzaile gisa, beren nortasun sozialak aitortuz.

Munduko III. Hezkuntza Foroaren Gutuna (Porto Alegre, 2004ko uztailak 31)

Euskal enpresariak eta hezkuntza

Euskal enpresarien ikuspegitik hezkuntza garrantzitsua izan da historikoki eta egun garrantzitsuagoa da oraindik. Izan ere, lehen aipatu bezala, ekonomiaren globalizazio prozesu berriak produktuen arteko mundu mailako lehia ezarri du eta lehia horretan Europak nekez egin diezaioke aurre Asiatik datorren ekoizpen merke eta ugariari. Horregatik, Europak (eta ildo horretan, Euskal Herriak) kantitatea baino kalitatea eskaini behar duela planteatu da eta kalitatea emateko giltza formakuntzan datza. Formakuntza ekoizpenean parte hartzen duen aldagai

garrantzitsua bilakatu da, beste aldagai klasikoekin maila berean (kapitala, lanaren antolakuntza...).

Era honetan, enpresariak beharrezkoa duten lan-esku *formatua* lortzeko hainbat estrategia jarri dituzte indarrean:

1. Hezkuntza sistemaren antolaketan eragitea, administrazioaren aurrean *lobby* bezala arituz. Batez ere lanbide heziketan eta unibertsitatean garatu da estrategia hau eta aurrera begira garrantzia handia izango duela ematen du. Unibertsitatearen esparruan, Europa mailako aldaketa orokorra bultzatzen ari dute enpresariak, Europako instituzioekin batera, Bologna prozesua deritzanaren bidez.
2. Hezkuntza sistema arautuan parte hartzea, ikastetxeak eta fakultate pribatuak sortuz. Kasu honetan ere lanbide heziketa eta unibertsitatea dira ekinbiderako lehentasunezko eremuak, modulo nahiz karreraren bidez beharrezkoak diren langile espezializatuak hezitzen dituzte. MCCren jarduera aipagarria da zentzu honetan, unibertsitate bat sortzera ailegatu delarik.
3. Hezkuntza sistema arautuan parte hartzea, ikastetxe eta unibertsitate publikoekin elkarlanean. Hainbat enpresek modulo formatiboen eta unibertsitateko masterren antolaketan parte hartzen dute.
4. Administrazioarekin elkarlanean, “etengabeko prestakuntza” izeneko antolatzea. Hain da handia etengabeko prestakuntzaren eremuan mugitzen den dirua, ezen ekoizpenerako faktore bat izatetik (formakuntza kalitatea handitzeko bitarteko gisa eta kalitatea irabaziak gehitzeko bitarteko gisa), ekoizpenerako bide izatera igaro baita (formakuntza irabaziak lortzeko esparru gisa).

Euskal langileria eta hezkuntza

Langile mugimenduak garrantzia handia eman izan dio formakuntzari historikoki, baina guztiz bestelako ikuspegi batetik. Errealitatea ezagutzea, errealitatea aldatzeko lehenengo urratsa zela ulertu zuten eta ulertzen dute egun langile askok. Aurreko atalean ikusi dugu nola jokatzeko ari diren enpresak hezkuntza esparruan. Nola jokatzeko ari dira herri mugimenduak eta sindikatuak? Aurretik finkatutako lau ardatzen arabera radiografia azkarra egingo dugu.

1. *Hezkuntza sistemaren antolaketan eragiten ari dira?* Bi ikuspegi daude uneotan herri mugimenduan eta sindikalgintzan. Lehenengoak eskola publikoa defendatzeari ematen dio lehentasuna, eta egungo eredu publikoarekin ados ez dagoela adierazten badu ere, administrazioarenak ez diren hezkuntza egitasmoekiko kritiko agertzen da. Bigarrenak, aldiz, hezkuntza sistema propiorik ez dugula kontutan hartuz, Euskal Herriaren zerbitzura egongo den hezkuntza sistema publiko eta nazionalaren aldeko apustua egiten du, eta apustu hori egungo eskola publikoaren barrutik nahiz kanpotik jorratu beharra dagoela defendatzen du. Edozein kasutan ere, bi ikusmoldeak bat datoz hezkuntzaren merkantilizazioa salatzeke beharrezkoekin, unibertsitatean, Bologna prozesuaren aurka antolatzen ari diren ekimenetan ikusi dugun bezala.
2. *Hezkuntza sistema arautuan parte hartzen ari dira, ikastetxe eta fakultateak sortuz?* Afera hau aurrekoarekin loturik dago. Lehenengo ikusmoldearen arabera, langile ikuspegitik ez du zentzurik ikastetxe eta fakultate pribatuak sortzea, eskola publikoa defendatu eta hobetzean datza gakoa. Bigarren ikusmoldearen arabera, aldiz, euskal eskola publikoa sortzeke dago oraindik eta egitasmo horren bidean bi hanka beharrezkoak dira, eskola publikoa batetik eta ikastolak bestetik. Langile familia ugari hainbat ikastolen sorreran burubelarri aritu dira eta egun ere ikastolak sostengatzen jarraitzen dute. Bestalde, lehenengo herri izaera galdu izanagatik kritiko azaltzen direnak ez dira gutxi.
3. *Hezkuntza sistema arautuan parte hartzen ari dira, ikastetxe eta unibertsitate publikoetan?* Sindikatu eta herri eragile ezberdinek bat egiten dute eskola publikoaren defentsan: administrazioari eskola publikoa garatzeko beharrezko baliabideak jar ditzan exijitzen diote eta enpresen esku sartzearekin kritikoak dira. Era berean, eskola publikoan parte hartzea bultzatzen, euskalduntze prozesua sustatzen, eskola eredu hobetzen saiatzen ari dira. Alabaina, gehienek uste dute hezkuntza komunitateak erabaki gaitasun handiagoa izan beharko lukeela.

4. *Etengabeko prestakuntzan parte hartzen al dute?* Euskal langile mugimenduak garrantzia handia eman izan dio prestakuntzari eta hezkuntzari. Testu marxistak eta bestelakoak argitaratu eta banatu izan dituzte sindikatu, alderdi eta bestelako eragile ezkertiarrek. Hor ditugu, esaterako, 70. hamarkadaren amaieran sortutako Errekaldeberriko Langile Unibertsitatea eta IPES formakuntzarako ekimena. Alabaina, esan dezakegu gaur egun hezkuntzaren gaineko ikuspegi herritar hori nahiko galduta dagoela eta enpresarien interesak nagusi direla prestakuntzaren aferari dagokionean. Are eta gehiago, hainbat sindikatuk etengabeko prestakuntzarako fundazioak eratu dituzte, enpresa munduaren eskakizunen arabera ikastaroak antolatuz.

Ekonomia vs. hezkuntza?

Ekonomia eta hezkuntzaren arteko loturari buruz aritu gara atal honetan eta aipatu dugu nola hezkuntza ekonomia arloan lehiatzeko aldagai garrantzitsua bilakatu den. Ekonomia eta hezkuntzaren arteko harreman hau, berez, kaltegarria da? Ez, harreman horren nolakotasunaren arabera izango da kaltegarria ala onuragarria. Kaltegarria litzateke hiru kasu hauetan:

- Hezkuntza sistema soilik arlo ekonomikoari erreparatuta antolatuko balitz, bestelako arloak (soziala, kulturala, politikoa) alde batera utzita. Hezkuntzaren xedea, pertsonak hezitu baino, lan-eskua hezitzea izango balitz.
- Alderdi ekonomikoari dagokionez, hezkuntza sistema enpresa pribatuen interesen arabera antolatuko balitz, beraien garapenerako unean une behar duten lan-eskua hezitzuz.
- Hezkuntza esparrua lehia ekonomikorako eta etekinak lortzeko beste esparru bat gehiago bilakatuko balitz.

Alta, hezkuntzak herritarren garapen integrala bilatuz gero (eta horren baitan, garapen ekonomikoa) eta garapen ekonomikoa enpresen interes pribatuen mesedetan ez, baina Euskal Herriaren interes orokorren arabera gauzatuko balitz, ekonomia eta hezkuntzaren arteko lotura onuragarria litzateke; areago eta gehiago, guztiz beharrezkoa. Hau da, hezkuntza sistema Euskal Herriaren eta euskal herritarren behar sozial, kultural eta ekonomikoen arabera antolatu beharko litzateke.

3. HERRI HEZKUNTZA EUSKAL CURRICULUMEAN

Aurreko atalean deskribatutako egoera kontutan hartu behar dugu Euskal Curriculumaren eztabaidari ekiterakoan. Alabaina, Euskal Curriculumaren eztabaidaren helburua ez da aipatutako afera horiei guztiei erantzuna ematea. Euskal Curriculumean ez gara hezkuntza sistemaren *egitura* definitzen ari, hezkuntza prozesuaren *edukia* baizik. Honako bi hauek dira, beraz, erantzun beharreko galderak:

- *Zein izan behar du, langile ikuspegitik, hezkuntzaren xedeak?*
- *Zeintzuk dira, langile ikuspegitik, Euskal Herriko 16 urteko gazteak eskuratu beharreko kompetentzia edo gaitasun nagusienak?*

3.1 HEZKUNTZAREN XEDEA³

Hona hemen “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curricula” proposamenean⁴ azaltzen den hezkuntzaren xedea: *Gizakia gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea da.* Definizio honetan oso interesgarriak diren bi elementu daude:

1. Gaitasunen garapena da hezkuntzaren xedea, ez ezagutza jakin batzuk buruz ikastea.
2. Hiru dimentsioak kontutan hartu behar dira: norbanakoa, gizartea eta izadia.

Alabaina, definizio horri hirugarren hanka bat falta zaio, eraldaketarena. Izan ere, eraldaketaren hanka gabe, hezkuntzaren eginkizuna dagoen errealitatean ahalik eta ongien moldatuko diren pertsonak hezitzera murriztuko litzateke.

³ “Euskal Curriculumari Euskal Herriak Bere Eskolaren ekarpena” agiritik aterata.

⁴ www.euskalcurriculum.info (Udalbiltzaren web gunea) eta www.euskalcurriculum.org (Ikastolen Konfederazioaren web gunea) aurki daiteke proposamena.

Guretzat okerra den ideia hori bera iradokitzen da 0. SARRERA puntuan, Euskal Curriculumaren proposamenari buruz ari denean: *hezkuntza proiektuaren planteamendua hobetzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen, gizarte europarraren eta gizarte unibertsalaren beharretara **egokitzeko** eta ikasleek emaitza onak lortzea sustatzeko.*

Baita 0.1 Beharren azterketa puntuan ere, *Euskal Curriculumean Europan integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreraginean **bizi ahal izateko** beharrezkoak diren konpetentziak ere sartu behar direla* esaten denean.

Edota 1.1 Oinarriak eta ezaugarriak puntuan: *helburua, beraz, ez da soilik eremu akademikoko eta profesionalerako konpetentzietan heztea, **gizarte batean bizitzeak eragingo dizkion arazoei eta gaiei erantzuten** jakingo duen hiritar gisa aritzeko konpetentzia horiek guztiak landuko dituen heziketa ematea* baizik.

Honenbestez, azaltzen den definizioa oso konformista eta kontserbadorea iruditzen zaigu. Interpretazioak interpretazio, hezkuntzari ez zaio izaera askatzaile edo emanzipatzailea aitortzen. Badirudi bere funtzioa ikaslea egungo gizartean, sistema politiko, ekonomiko eta sozialean, ahalik eta hobekien moldatzeko prestatzea dela, egungo sistemaren gabeziak, injustiziak, kalteak... kolokan jarri gabe. Orain arte bezala, objektu papera eman ez eta historiaren subjektu izateko eskubidea oztapatuz.

Hezkuntza kultur transmisiorako tresna izateaz gain, pertsona kritikoagoak izaten, geure buruaren jabe izaten lagundu behar gaitu. Hezkuntzak askatzailea izan behar du eta ez menperatzailea. Hezkuntza sozialki eraikitako errealitatea izaki, curriculumaren bidez errealitate horietaz jabetzea lortu behar da, modu horretan gizartea eraldatzeko gaitasuna izango baitugu. Gizaki aske eta autonomoak hezi behar ditugu, ideia faltsu zein komunikazio modu distortsionatuetatik emantzipatutako pertsonak.

Modernitatearen aro honetara iritsi garenean, tren laster bat ageri zaigu, globalitarismoa, mundu zabalaren neurriak etxalde bihurtu nahi dituen tren lasterra. Tren geldiezina, baina norabidez aldatu beharrekoa. Herri gisa egituratu ezean, ekonomiaren globalitarismoak, industria kultural multinazionalak eta berregituraketa geopolitikoak irentsiko gaitu eredu kultural homogeenaren *tsunamian*. Beste mundu bat posible delako lelotik beste mundu eredu batera igaro behar dugu, eta Euskal Curriculumak ere beste mundu hori sortzeko ekarpena izan behar du.

Definizio alternatibo bat eman beharko bagenu, honakoa emango genuke: **Hezkuntzaren xedea gizakiari errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatu dezan.**

Definizio honek hezkuntzaren eta errealitatearen arteko kontraesana (errealitatean balore jakin batzuk nagusitzen diren bitartean, bidezkoagoak diren balore batzuen arabera nola hezitu) askatzen duelakoan gaude. Gizakiak ahalik eta gaitasun gehien garatu ahal izateko, gizartea bera aldatu beharra dago eta. Gehitzen ditugun elementuei buruz, zehaztaperen hauek egin nahi ditugu:

- Errealitatea aipatzen dugunean, egungo errealitateaz gain, errealitate historikoaz eta etorkizunekoaz ere ari gara. Alegia, hezkuntza prozesua honako hiru galdera hauen gaineko hausnarketa etengabe oinarritu behar da:
 - Nondik gatoz?
 - Nor gara?
 - Nora goaz? Eta nora joan NAHI dugu? (Freireren utopia beharrezkoa)

Ez dago hiru galdera horien inguruko erantzun bateratua ematerik; ez dago guztiontzako baliagarria den definizioa emateko modurik. Baina, gainera, ez dago horretarako beharrik ere. Izan ere, hezkuntzaren funtzioa ez da galdera horiekiko erantzunak ikasleei ematea, baizik eta ikasleekin batera galdera horien gaineko hausnarketa egitea. Hau da, hezkuntza sistemak galderak egin behar ditu eta galdera horiei dagokionez zientzia eta kultur ondarea aurkeztu behar die ikasleei, baina galderekiko erantzunak ikasleek berauek bilatu eta aurkitu behar dituzte. Azken batean, belaunaldi bakoitzak errealitatea berrasmatu behar du.

- Errealitatea *kontzienteki* ulertzearena apropos jarri dugu. Kontzeptu horrekin, kritikotasunaren elementua azpimarratu nahi dugu, alegia, errealitatean ontzat ematen ditugun elementuak eta aldatu beharrezkotzat jotzen ditugunak bereizteko gaitasuna.

Definizioa hobetzen jarrita, guk beste hiru aldaketa egingo genuke:

- *Gizakia* kontzeptua (singularrean), *herritarrak* kontzeptuarekin (pluralean) ordezkatu. Izan ere, pluralaren erabilerak hobeto islatzen du hezkuntza prozesua kolektiboa dela eta herritar kontzeptuaren erabilera herri ikuspegiari erreferentzia egiten dio. Ildo berean, *gizartekide* kontzeptuaren ordezkari, *herrikide* kontzeptua ere erabili daiteke.
- *Ahalik eta gaitasun gehien garatzea* esaldiaren ordezkari, *osoki garatzea* jarriko genuke. Lehenengo esaldian badirudi afera kuantitatiboa dela (ahalik eta gehien) eta egia da hezkuntza prozesu intentsiboago batek gaitasun gehiago garatzen lagundu dezakeela. Alabaina, guk uste dugu elementu kualitatiboari eman behar diogula garrantzia, hau da, pertsona integral bezala garatzea, pertsona aske eta zorientzua (*osoki* hitzaren ordezkari *integralki* jar liteke).
- Amaitzeko, zentzuzkoa litzateke hezkuntzaren xedea Euskal Herrian kokatzea, azken batean Euskal Curriculumaz zehazten ari baikara, eta ez hezkuntzaren gaineko hausnarketa orokor bat burutzen. Definizioa Euskal Herrian kokatzerakoan, beste konnotazio batzuk hartzen ditu berehala.

Modu honetan geratuko litzateke, beraz, definizioa:

Euskal hezkuntzaren xedea herritarrei errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izadikide gisa osoki edo integralki garatu daitezkeen.

3.2 HEZKUNTZA KONPETENTZIAK

Konpetenteak, zertarako?⁵

Proposamenean esaten den bezala, ezagutza jakin batzuk barneratzea baino, konpetentzia batzuk eskuratzea izan behar du hezkuntza prozesuaren funtsa. Baina, zertarako behar ditugu konpetentzia horiek? Berriro ere, lehenengo lelo bera errepikatu behar dugu: egungo errealitatea ulertu eta errealitate berriak sortzeko behar ditugu. Bestela, zirkuito arriskutsu batean sartuko ginateke: dagoen errealitatean ahalik eta hobekien moldatzeko konpetentziak eskuratzea baldin bada kontua, argi dago egungo gizartearen gaitasun jakin batzuk dituzten eta balio-eskala jakin baten arabera jokatzeko duten gizabanakoek “arrakasta” gehiago daukatela (eta ez al da horixe Bologna prozesuan unibertsitateen eta pertsonen artean aldarrikatzen den lehiakortasunaren eredua?). Baina, guretzat gizartearen baitako lehiakortasun hori eta balio-eskala hori bidezkoa ez baldin bada, argi dago, kasu horretan, gizon edo emakume arrakastatsuek hezitza baino, gizartearen funtzionamolde bidegabeekin eta nagusi den balio-eskalarekin hautsi eta bidezkoagoak diren beste balore batzuen arabera jokatzeko duten (gaitasun edo konpetentzia hori daukaten) pertsonak hezitu beharko ditugula. Beraz, eraldaketaren ikuspegia, aldaketa sozialaren beharra, errealitate berrien sorrera, aldarrikatu beharreko kontzeptuak dira guretzako, konpetentzien planteamenduari estuki loturik.

Bestalde, kritikagarria da proposamenean Bolognako Deklarazioari eta Tuning proiektuari buruz aipatzen dena. Bi erreferentzia hauek aldarrikatzen dira hezkuntza konpetentzien planteamenduaren berritasuna eta egokitasuna justifikatzeko. Baina bi erreferentzia hoiek bi gabezi daukate: batetik, diskurtso eta praktikaren arteko kontraesana (balore aurrerakoiak aldarrikatzen dira, interes ekonomikoetan oinarritutako prozesuak janzteko); bestetik, hezkuntzaren eta hezkuntza konpetentzien gaineko ikuspegi ez askatzailea (egungo gizarte globalizatuan eta bide batez lan merkatuan ahalik eta eraginkorrenak izango diren pertsonak hezitzea). Aipamen hauen desegokitasuna areagotu egiten da, European nahiz Euskal Herrian bertan Bologna prozesuaren inguruan entzuten hasi diren iritzi kritikoak kontutan hartzen baditugu.

Langile ikuspegitik landu beharreko kontzeptuak

- Historia eta gizarte gaiak lantzerakoan, herritarren egoera, behar eta eskariengan arreta jartzea. Herria historiaren protagonista bezala.
- Langile Mugimenduaren historia ezagutzeko, bere aldarrikapenak, eman dituen urratsak, egungo egoera.

⁵ Azpi-atal hau ere EHBEn proposamenean hartu da.

- Egungo egoera ulertzeko garrantzitsuak diren gaiak jorratzea: ekonomiaren funtzionamoldea, jendartearen antolaketa, soziologiari loturiko gaiak...
- Pertsonaren dimentsio soziala garatzeko garrantzitsuak diren gaiak jorratzea: sexualitatea, komunikazioa, kontsumoa, aisialdia...
- Euskal Herrian eragina duten prozesu ekonomikoak ezagutzea (industrializazioa, desindustrializazioa, globalizazioa) eta prozesu horien eta gizartearen antolaketaren arteko loturak ezagutzea. Indikadore eta fenomeno sozioekonomiko nagusienak interpretatzeko gaitasuna.

Prozedura eta abileziak

- Errealitatearen azterketa egiteko gaitasuna. Kritikotasuna, iritzi propioa. Egunero irakurtzen ditugun berriak interpretatzeko gaitasuna.
- Herritar aktiboa izateko beharrezko abileziak:
 - testuak aztertu, ondorioak atera;
 - iritzia finkatu, eztabaidatu, adostu;
 - publikoan hitz egin, bilerak dinamizatu, ideiak transmititu;
 - mobilizatu, eragin, eraiki, sustatu.

Baloreak

- Kolektiboaren garrantzia. Eskolaren testuinguruan, ikaskideek osatzen duten kolektiboa.
- Elkartasuna. Eskolaren testuinguruan, ikaskideen arteko laguntza eta elkarlana.
- Eraldaketa. Errealitatea ulertu ezezik, aldatzeko eta hobetzeko gogoia, griña.

3.3 AGERIZKO ETA EZKUTUKO CURRICULUMA

Arlo guztietan garrantzitsua da agerizko curriculumua ezezik, ezkutukoa ere kontutan hartzea, baina eskubide sozialen eremutik begiratuta, areago eta gehiago. Izan ere, eta enpresa munduko ideologiaren eraginez, hezkuntza sistemaren eta zehazkiago klasearen funtzionamoldean hainbat balore lantzen dira inplizituki. Ildo honetan, badago klasearen funtzionamoldea eta lantegiarena konparatzen duenik:

- klasean egunero-egunero “fitxatu” beharra dago (asistentzia derrigorrezkoa);
- puntualitatea oso garrantzitsua da (beste akats batzuk baino gehiago kritikatzeko da);
- produktibitatea estimatzen da (ahalik eta nota hoberenak lortu);
- konpetibitatea ere bultzatzen da (nota hobekoak edo hoberenak atera);
- jarrera pasiboa gailentzen da (dena programatuta dago, enpresan bezala).

Ez dugu hemen ezkutuko curriculumaren gaineko azterketa eta hausnarketa egiteko lekurik, baina hori kontutan hartzearen beharra azpimarratu nahi dugu. Izan ere, gerta daiteke teoriarik balore batzuk lantzea klasean (esaterako, elkartasuna) eta aldi berean kontrako norabidean doazen praktikak sustatzea (esaterako, ikasle bakoitzak nota bat izatea).